

Max Brisson

Biarritz, 1957. UMPko kidea da. Pirinio Atlantikoetako Kontseilu Nagusiko kontseilaria eta UMP taldearen burua. Biarritzeko auzapezordea. Euskararen Erakunde Publikoko (EEP) presidentea. Frantziako Parlamentuak Konstituzioaren erreforma onartu baino ordu batzuk lehenago mintzatu ginen Biarritzeko Herriko Etxean. Didier Borotra zentrista da Biarritzeko auzapeza. Bernard Marie eskuindarra izan zen bere aurrekoa, gaur egungo Frantziako barne ministro Michelle Alliot-Marie-ren aita. Alliot-Mariek auzapez izateko nahikaria duela aipatu zen azken bozetan. Max Brissonnek zurrumurutzat jo ditu nahikariok. Auzapez izateko nahiaz galdetuz abiatu dugu elkarrizketa.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Gaizka Iroz



«Posiblearen borroka egitearen aldekoa naiz»

“Politikan errazegi zabaltzen dira estereotipoak. Zuhurtziaz jardun behar duzu eta unea iritsita helburuak lortzeko borrokatu. Auzapez izatea nire xedetan dago, bistan da”, erantzun digu.

Biarritzez bere ikuspegia eta nahikaria azaldu dizkigu: “Biarritz hiri oso garrantzitsua da. Euskal Herriak isolatua izan ordez, herrialdeari atxikia bizi behar duena. Turismoa da bere ekonomiaaren lehen euskarria eta honen arrakasta Euskal Herriaren aberastasun kulturalen datza. Bere nortasuna gorde behar du, eta ez konparazione, Monako bilakatu. BAB (Baiona-Angelu-Biarritz) aglo-

merazioan garatzen ari da eta inguruko Herrien Elkargoekin bide egiten segitu behar du, baita Euskal Herriko Hegoaldearekin elkarlanean ere”.

Frantziako Konstituzioaren erreforma bozkatuko da gaur Kongresuan [uztailaren 21ean]. Zer igurikitzen duzu?

1958an onartu zen Konstituzioari eginen zaion erreforma inportanteena da. Aldaketa hauek Parlamentuaren eskubideak indartu nahi dituzte eta presidentzialismo zurruna malgutu. Presidentearen botere oreka biltzen du, botere legegileari eskumen gehiago emateko. Ez dakit erreforma hau gauzatuko den [boz bakarraren

aldearekin onartu zen arratsaldean], horrela ez balitz tamalgarria litzateke. Erreformatik gure instituzioak bide are demokratikoago eta errespetatuago batetik eramango litzuzke.

Nicolas Sarkozy bultzatutako erreforma da. Asmoa bere programan sartu omen zuen, sozialisten eta zentristen lehentasuna zelako. Bitxia da.

Bai. Erreforma prozesu hau zentristek nahiz sozialistek ere desiratua da. Alta, François Bayrouk eta bere hurbilekoek aurka bozkatzera deitu dute politikakeria eginez. Honek ez du ukatzen Sarkozyren espiritu argia, ordea. Bayrouk politikakeria egiten



“Mesfidantzen garaia gainditu dugu, ikasitakoa ez da gutxi”.

du, proiektuak proposatzen dituen aldaketak bere programan baitziren.

Sozialistek erreforma ez doala behar bezain urrun argudiatu dute.

Sozialistek erreforma harago joatea nahi dute. Ondo da. Baina Sarkozyren proposamenak ez doaz beren proposamen bakar baten aurka. Konstituzioari malgutasun gehiago emateaz gain presidentziaren bosturteko agintaldia ezarri nahi du presidenteak. Jack Lang kultur ministro sozialista ohiak alde bozkatuko duela iragarri du. Senatari eta diputatu sozialista nahiz zentrista zenbaitek erreformaren aurka bozkatzean Konstituzioaren erreformaren eta instituzioen egonkortasunaren ordezkariak Sarkozyren porrota bilatzen dute.

Demagun erreforma onartua dela. Hizkuntza gutxituak Frantziako ondare gisa hartuko ditu Konstituzioak. Alabaina, euskara ez da hizkuntza ofiziala izanen.

Arrazoi duzu, ondare izateak ez dio ofizialtasunik emanen. Eta ez da

nahikoa. Baina irabazi dezagun posible dena, irabaz dezakegun borrokan leihatu behar dugu. Erreforma hau errefusatzaren arerioen aurka ezin ditugu indarrak alferrik xahutu. Arerio horiek oso nabarmenak dira, Senatuan nahiz Frantses Akademian, adibidez. Oso urrutira joaten saiatzen bagara, hizkuntza gutxituen aurkariak berauek ezabatzen saiatuko dira. Ni posiblearen borroka egitearen aldekoa naiz.

Harago joatea zaila beraz.

Zaila da, zinez. Frantziako jendearen gehiengoak euskara, bretoiera edo katalana frantsesa-

ren mailan jarriko dituela pentsatzea frantses gizartea ez ezagutzea da, benetan, barrenetik ez ezagutzea da. Barren horren sakonean zentralismoa eta jakobinismoa dago, frantses nazioaren beraren ideia. Ideia hori frantses gizartearen gehiengoak sostengatua da, aise gainera, eta berdin Frantziako Euskal Herrian, Bretainian, Katalunian edo Alsatzian.

Gobernua lantzen ari den erreforma ez dela nahikoa pentsatzen duzu halere.

Nondik begiratzen duzun. Europako hainbat herrialdetan egiten dutenarekin alderatzen baduzu bai. Baina gaur egun erreforma hau da gehienez lortu dezakeguna. Uneon harago joan nahi izateak gerra piztu lezake, arerioak bizkortuko litzuke eta lortutakoa galdu.

EEPko presidente karguan berretsia izan zara. Zein dira erakundearen xedeak?

EEPk bi ardatz nagusi ditu. Lehena: eragile frantses guztiekin batera politika publikoa gauzatu ahal izatea:

Estatua, Erregioa, Departamendua eta Herriko Etxeak euskararen inguruan ari dira historian lehen aldiz. Proiektu globala eta onuragarria da. Pentsa dezakegu ekimenak ez duela oraindik bitarteko nahikorik, baina bere politika koherentea da. Lehen aldia da politika linguistiko hau eramaten dela Frantziara. Frantziako Euskal Herrian abiatu den kontzeptu hau ez zen orain arte Frantziara existitzen. Bigarrena: euskara egituratzeko metodoa lantzen ari da, euskaraz garatua. Hau ere mugatua da bere baliabideetan, baina urtetik urtera irakaskuntzako planifikazioa sendotzen doa. Gaur egun eskola da euskara transmititzeko bitartekoa eta badakigu ez dela nahikoa berau bizirik atxikitze, ingurumariak euskalduna izan behar duela eskolan ikasten dena erabiltzeko. Hori da benetako lantegia eta erakundearen pario handiena. Euskara eskolako gaia besterik ez bada ez da aski izango euskara atxikitze, kontzientek gara horretaz.

Euskal Herria 2020 ekimena hizpide. Kontratua kritikatu izan da 2010 delakoak baino baliabide gutxiago duela.

Kontratu hau eta honen aurrekoa ezin ditugu maila berean kokatu. Aurrekoaren finantzamendua, besteak beste, ingurumen eta saneamenduari sareei begira landu zen. Lan hauek bideratuak dira. Kontratuak gaiztatuak alderatzen baditugu, kontratu honen funtsa oso hurbil dago aurrekotik, baina gaia eta euren kopurua ez dira berberak.

Alderdi abertzaleek ekimenak ez duela Euskal Herria egituratzen dio.

Baina abertzaleak gutxiengoak dira. Gaur gaurkoz Euskal Herrian ez dago gehiengorik abertzaleen nahiak betetzeko, ezta Euskal Herriaren aldeko berezko egitura izateko ere. Abertzaleen aldarrikapenak legitimoak dira, baina onartu behar dute gutxiengoak ezin duela gehiengoaren nahiaren ordezkatu. Abertzaleek berezko proiektua nahi dutela, ongi, baina Frantziako Euskal Herriko bizilagun gehiengoak ez du Euskal Herriaren zatirik berezkitasunik nahi. Departamenduaren eskaera, adibidez, eztabaidagarria da, noski, baina Errepublikaren zuzenbideak eta

hemengo biztanleen gehiengoak ez du ideiarekin bat egiten.

Egoera politikoa aldaezina da antza.

Abertzaleek diotenez euskal nortasuna ukatua dago, eta nik diot Errepublikako instituzioen markoan aitzina-mendu izugarriak egin ditugula. Testuinguru politikoaren alde guztiak aztertu behar dira. Ezin dugu Euskal Herriko gizartea idealizatu, ezin dugu desiratzin dugun testuingurura eramane errealitateari bizkar emanda. Urrutiegia joan nahi izateak aurkakotasun indartsuak piztu ditzake eta gibelera eramane.

Herriko Etxeetan hautetsi eta auzapez independente berriak sartu dira. Horrek ekarriko al du aldaketarik indar politikoaren korrelazioan, zure ustez?

Hautetsi berrien gehiengoak ofizialki ez du marka politikorik, baina konbizio politikoak dituzte. Inor ez da Herriko Etxe batera iristen konbizio politikorik gabe. Abertzaleen aitzinamendua hainbat kantonamendutan erreala da. Herrien Elkargoe-tan aldaketak interesgarriak ematen ari dira. Alta, Euskal Herriko udalerrietako proiektu nagusiak UDF-MoDem, PS edo UMPEko kideek kudeatzen dituzte, hautetsien gehienak eskuin, zentro edo sozialistak dira. Euskal Herriko hainbat auzapezek agintaldia ez politizatua agertu nahi dute, baina alderdiak dira demokraziaren berme, ez dago demokraziarik alderdi politikorik gabe. Alderdiak etengabe kritikatzeko populismoa eta demagogia egitea da, diskurtso hori biziki arriskutsua da. Auzapezek kasu eman behar dute beren diskurtsoak alderdien aurka zuzentzean,

demokrazia ahultzen dute, baita beren agintaldia ere.

Batera plataforma herrikoia- ren aldarrikapenak nola baloratzen dituzu uneon?

Aldarrikapenak legitimoak dira. Bateraren ekimenak demokratikoki eramaten badira, ez naute aztoratzen. Aldian aldiko gobernuak aurka agertu dira, alta. Departamenduari buruz Kontseilu Nagusiak dioena ezaguna

“Ezin dugu Euskal Herriko gizartea idealizatu, ezin dugu desiratzin dugun testuingurura eramane errealitateari bizkar emanda”

da. Abertzaleek borroka dezakete, baina ez dago departamendua sortzeko borondate politikorik. Unibertsitatearen eskaera historiaren kontrarrean doa guztiz, Euskal Herriko Unibertsitate bat sortuko dela pentsatzea kontrako norabidean joatea da. Akitaniako Unibertsitate bakarra Bordelen izanen da laster. Euskararen ofizialtasunaz nire iritzia eman dizut jada. Laborantza Ganbara blokeatuta dago eta benetan sentitzen dut. Krispazioa uxatu eta elkarriketa gehiago landu beharra ikusten dut laborarien ordezkariekin, ELBrekin bestek beste.


EEPKo eta Eusko Jaurlaritzako Kultur sailaren arteko harremanak mesfidatiak omen ziren iraganean. Egun nola- koa da harremana?

Jaurlaritzaren aldetik hitzartu gabeko parte-hartzeak deskonfiantzak sorra-

razi zituen hasieran. Hemengo erakunde batzuen proiektuentzat zen- bait laguntza izan zen Frantziako Euskal Herriko hautetsi frantsesen onespenik gabe. Egun, Miren Azkarateren bitartez, hautetsik nahiz teknika- rik txostenak elkarrekin garatzen ikasi dugu. Mugaz gaindiko benetako kolaborazioa garatzen ari gara. Euskararentzako Jaurlaritzaren laguntza beharrezkoa da, eta nik benetan eskertzen dut. Ez dira opariak, laguntza hauek elkarriketa bidez akordatuak dira, elkarrekin harturiko erabakien ondorioz. Jaurlaritzaren eta EEPren arteko itunak sendotzea eta hobetzea merezi du.

Iparraldeko eta Hegoaldeko harremanak hobetzeko moldea ikusten duzu, beraz.

Nahiz hurbil gauden gure arteko ez- ezagutzak handiak dira, gure sistema eta administrazio politikoak oso ezberdinak dira. Alta, etorkizun bateratua landu behar dugu Europako Batasunaren eraikuntza bidean. Euskararen alorraz gain, ingurumena eta garraio politika bateratuak lantzerak behartuta gaude. Baiona-Donostia arteko aglomerazioa eta ekosistema- ren lanketa batua, kasurako. Osasun arloan bi aldeko instituzioen arteko harremana oso ahula da oraindik. Europako mugaz gaindiko beste hiri- gunetan askoz aurreratutakoak daude, Katalunian adibidez ospitaleak elkarrekin kudeatzen ari dira. Mugaz bi aldeetako euskaldunok askoz gehiago sakondu behar dugu elkarlana. Euskararen alorrean egin ditugun aurrerapenak beste alorrean ere garatu daizteke. Mesfidantzen garaia gaintu dugu, ikasitakoa ez da gutxi. ■



HONDARRIBIA

Abuztuaren 13tik 17ra, San Pedro kalean

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

Bizi irakurriz!

ARGIA

51